

Kuadrillategi

**Koadriletan euskararen erabilera
suspertzeko egitasmoa**

Kuadrillategi egitasmoa koadriletan euskararen erabilera suspertzeko egitasmoa da.

HELBURUAK:

- Euskaraz egiteko ohitura duten lagunartek gehiago finka dezatela ohitura, hizkuntzari balio kulturala eta soziala emanez.
- Erdaraz egiteko ohitura duten lagunartek euskaraz egiteko ohitura finka dezatela. Hizkuntzazko ohituraren aldaketa.

Marko teorikoa.

Normalizazioaren ikuspuntu kolektiboa.

Egitasmo hau hizkuntza normalizazioaren eredu kolektiboan oinarritzen da. Ikuspuntu honen arabera, normalizazio prozesuaren eragilea ez da gizabanakoa taldea baizik, eta gainera, erabilerak dakar ezaguera. Taldeak ohiko testuinguru errealean euskara erabiltzea erabakitzen duelako egiten du eta ikasten du euskaraz gizabanakoak. Erabaki kolektibo batek abiaraziko luke, beraz, normalizazio prozesu bat, eta prozesuak berak eukaldungo lituzke gizabanakoak.

Hizkuntzazko jokaeraren izaera kolektiboa.

Hitz egitea gutxienez bi lagunen parte hartzea eskatzen duen jokaera da. Hitz egiten dugu, elkarrekin komunikatzeko eta elkarren arteko hartu-emanak kudeatzeko (Jauregi 1998:21).

Kideen arteko hartu-emanak hobetzen direlakoan, taldeak makina bat arau adostu eta ezartzen ditu. Honakoak aitortuak (jakinaren gainean betetzen direnak) zein aitortu gabeak (oharkabeen betetzen direnak) izan daitezke.

Gauzak horrela, talde guztiek arautzen dute nolakoa behar duen izan bere baitan kideen arteko hizkuntzazko jokaera, baita zein hizkuntza erabiliko den. Beste era batera esanda, taldeak arautzen du, modu aitortuan nahiz aitortu gabean, taldearen baitan kideek elkarrekin euskaraz ala erdaraz egingo duten (Jauregi, eta beste, 2000b:133).

Zergatik egiten du orduan talde batek erdaraz?

Taldeak horrela arautu duelako. Jakinaren gainean arau dezake taldeak erdaraz hitz egitea; maiz, ordea, ez da arrazoirik izaten, besterik gabe, ekinaren poderioz erdaraz hitz egitea ohitura bihurtzen da, eta zaila gertatzen zaio taldeari ohitura bihurtzen den hizkuntzazko jokaerari aurre egitea.

Bi fenomeno ditugu, erdararen aldeko jokaerak erraztu eta maiz derrigortu dituztenak:

- a) erdal elebakartasunaren indarra (elebidunez osaturiko talde batean kide erdal elebakar gutxi batzuen presentzia nahikoa izan ohi da erdara nagusi dadin euskararen kaltetan);
- b) erdal gune soziolinguistikoaren indarra (erdararen presentzia erabatekoaren ondorioz, eguneroko harreman formal eta informaletan, kultur kontsumoan, komunikabideetan eta nonahi, elebidunek erdararekiko identifikazio afektibo eta instrumental sakona garatzen

dute. Baina ez identifikazio hutsa, erdaraz egiteko erraztasun handia ere badakar aurrekoak, barne pentsamendurako hizkuntza ere bera izateraino.

Nola has daiteke taldea euskaraz bizitzen?

Euskaraz egitea galarazten duen arautegia gaindituz, hau da, ohituraren aurka doan jokaerari helduz: gure kasuan, euskaraz hitz egitea.

Jauregik hainbat ohar eskaintzen ditu:

“Hizkuntza ukipenezko gizarte egoeretan, non hizkuntza bat menderatzailea eta nagusia den, eta bestea menderatua eta gutxiagotua, berezko taldeetan gertatzen diren hizkuntza jokaeraren aldaketak, normalean modu inplizituan eta berezkoan suertatzen dira hizkuntza nagusiaren alde abiatzen direnean. Baina aldaketa hizkuntza gutxiagotuaren alde mugitzen denean, modu esplizituan eta kontzientean izan ohi da. Beraz, hizkuntza gutxiagotuaren aldeko jokaera aldaketa eragin nahi izanez gero, harreman sarea osatzen duten kide guztien esku-hartze esplizitua behar da” (Jauregi eta beste 200:133).

Kuadrillategiren kasura etorruta, taldeek esplizitatu beharrekoa honako da: ***lagunarteko bost lagunekin batera emango dutela izena eta Kuadrillategin diharduten denbora osoan elkarrekin euskara hutsez egingo dutela.***

Prestutasuna, ordea, ez da gauza nahiko jokaera berria ohiturazkoa bihurtzeko. Ohikoa ez den hizkuntzan jardutea jokaera berria da. Jokaera berria behin eta berriro gauzatuz baino ez da jokaera automatiko eta ohiturazko egingo. Berezko taldeek, hortaz, elkarrekintzan maiz samar jardun behar dute hizkuntzazko jokaera berria esperimendazio fasetik automatismo fasera igarotzeko. (Jauregi eta beste 2000:134).

Zein baldintza bete behar dira talde batean euskararen aldeko jokaera eman dadin?

Baldintza objektiboak (soziolinguistikoak):

- **Taldekide elebakarren presentzia eta taldekide euskaldunen kopurua eta hizkuntza gaitasunaren maila.** Taldeko lagun guztiek euskaraz jakin behar dute, oinarrizko gaitasuna bederen. Taldekide euskaldunen kopurua eta hizkuntza gaitasuna zenbat eta handiagoa izan, orduan eta errazago bideratuko da hizkuntzazko ohituraren aldaketa.
- **Euskaldunak eta erdaldunak taldearen egituran betetzen duten funtzioa, tokia.**
- **Taldean mugitzen deneko giroa:** prozesuak errazago egingo du aurrera testuinguru euskaldun batean erdaldun batean baino.

Baldintza subjektiboak (psikolinguistikoak).

- Alde batetik, taldekideek **jokaera berria esperimendatzeko gogoia** eduki behar dute. Gutxieneko gogoia behar da elkarrekintzari etengabe eusteko. Bestetik, **hautemate subjektiboaren indarra** garrantzi handikoa da. Taldekideek antzeman behar dute hizkuntza jokaera berria desiragarria dela, gogoko ekintza, egingarria, komunikazioa oztopatzen ez duena, eramangarria eta neurritz kanpoko ahaleginik eskatzen ez duena.

Kalean gutxitan ematen dira baldintza guzti horiek aldi berean. Euskaraz ikasi eta bizitzeko gune babestuak behar dira. **Kuadrillategi da euskaraz bizitzen hasteko koadrilei eskainiko zaien gune babestu bat.**

Marko metodologikoa.

- Ikerketak **aisialdiko eskaintza** soilaren itxura hartuko du gazteei aurkezterakoan. Kuadrillategin diharduten denboran, gazteek euskara hutsez mintzatu behar dute. Izena emateko garaian, gazteei argi asko azaltzen zaie, Kuadrillategik eskaintzen dien aisialdiaren truke elkarrekin euskara hutsez egin beharko dutela egitasmoko orduetan. Trukea onartuz gero, aurrera egiten dute; onartu ezean edota bete ezean, egitasmotik kanpo geratuko dira.
- **12-14 urte** bitarteko gaztetxoei eskainiko zaie egitasmoa (DBH1-2).
- Gazteek **hiru baldintza** bete behar dituzte egitasmoan parte hartzeko:
 - o Ikasketak B edo D ereduan egitea
 - o Taldekako izen-ematea: gutxienez 5 lagunek eman behar dute izena.
 - o Egitasmoko jardueretan euskaraz mintzatzea.
- Egitasmoan zehar **astean bi orduz** elkartuko dira tailerrak, jolasak eta antzeko ekintzak egiteko. Ikasturtean zehar irteerak ere egingo dituzte, nahi izan ezkerro beste herrietako gazteekin batera, edo bakarrik.

Zer eskaintzen die Kuadrillategik gazteei?

- Gune fisiko bat elkarrekin biltzeko
- Neska-mutilak ezagutzeko aukera
- Gauza berriak egiteko aukera

Garrantzitsuena ez dira antolatzen diren ekintzak, baizik suspertzaile eta gazteen artean sortzen diren harremanak

Egitasmoaren emaitzak.

2001-2003 biurtekoan jasotako emaitzak baikorrak dira: *bi urteren buruan, diseinuak agintzen dituen baldintzak betez gero, modu nabarmenean hobetzen da euskararen erabilera koadriletan.*

Bi urtekoaren emaitzak biltzen dituen liburuan datu mordo bat dago egitasmoaren eraginkortasuna agerian uzten duena: lagunengaitasunean portzentai esanguratsu batek hobera egin du, eta bikoteen erabileran ere, koadrilan eman zitezkeen biko-harremanetan euskararen erabilerak modu nabarmenean egin du gora.

Datuen irakurketa egiterakoan kontutan izan behar dugu diseinuak agindu dituen baldintzak bete dituzten lagunek eta bikoteek baino ez dutela hobera egin. Baldintzak:

- Esku-hartzean **gutxienez 68 ordu** ematea.
- Esku-hartzean eman den denboran euskara hutsez jardutea. Honek gutxienezko euskara-maila eskatzen du.
- Aurreko bi baldintzak bete dituzten lau lagun gutxienez biltzen dituen talde bateko kidea izatea.

Argi dago **esku-hartzea euskararen erabilera suspertzeko guztiz eraginkorra** dela. Hala ere, **hizkuntzazko ohituraren aldaketa prozesua erabat gauzatzeko, taldeak ezaugarri jakin** batzuk izan behar ditu (Euskaraz “nahiko ongi” hitz egitea, “nahiko euskalduna” den koadrila izatea eta koadrilan euskararen erabilera nahikoa handia izatea) bi urteren buruan euskararen aldeko joera erakutsiko badu. Ezaugarri horiek eman ezean nekez lortuko du taldean bi urteren buruan euskararen aldeko joera erakustea. Asko jota, prozesua abiatu ahal izango du erdararen aldeko joera baztertuz, eta ez da lorpen makala.

